**Auzolandegien ezaugarriak, kuota eta arauak**

**Ezaugarriak**



**Iraupena**: normalean, hamabost egunekoak izaten dira.

**Lanaldia**: gutxi gorabehera, astean 20 ordutan lan egiten da, gehienbat goizez. Arratsaldez jarduera soziokulturalak egiten dira inguruneko errealitatearen berri izateko, bai eta aisialdiari eta astialdiari lotutako jarduerak ere, esate baterako, ondare historiko-artistiko aberatsa duten tokietara joatea. Atzerrian, zenbaitetan, ordu gehiago egiten dituzte; batzuetan, baita arratsaldez ere.

**Osaera**: 20 eta 25 arteko boluntario, eta, horrez gain, arduradun teknikoa eta zuzendaritzako taldea.

**Zuzendaritzako taldea**: talde hau auzolandegiko zuzendariak eta gutxienez gazteen elkarte bateko kide diren bi sustatzailek osatuko dute.

**Kuota:**

Parte hartzeko kuota **72 eurokoa** da (kontsulta ezazu kuotaren itzulketari  buruzko informazioa).